

Nafarroako tokiko administrazioen euskara teknikarien kontratazio-zerrenda sortzeko deialdia.

Lehiaketaldiaren balorazioari aurkeztutako alegazioei erantzuna

Epaimahaiaren akta

Atarrabian, 2025eko maiatzaren 19an, 9:00etan, alegazioak aurkezteko epea amaituta deialdiaren epaimahaia bildu da udal bulegoetan, Nafarroako tokiko administrazioen euskara teknikarien kontratazio-zerrenda sortzeko deialdiko lehiaketaldiaren balorazioaren aurrean jarritako alegazioak berrikusi, baloratu eta ebazteko. Alegazio idazkien egiturari jarraituz alegazio bakoitzaren hitzez hitzeko testua idatziko dugu eta erantzuna eman:

1. MAITE URIARTE BELZUNEGUI IZANGAIK AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK (2025/04/16ko 1900 / 2025 sarrera zenbakia):

Nafarroako toki administrazioetan euskara teknikariak kontratatze zerrenda sortzeko deialdian aurkeztutako meritua baloratzeko eskatu nahi dut.

Lan bizitzaren agiria txertatzea ahaztu zitzaidan baina nire esperientzia justifikatzen duten ziurtagiriak atxiki nituen. Akats hau konpontzeko falta zen agiria atxikitzen dut.

Epaimahaiaren erantzuna. Deialdiak, hain zuzen, honako hau aipatzen du oinarrietan: “4.2. Parte hartzeko eskabidearekin batera honako agiri hauek aurkeztuko dituzte izangaiak: c) Lehiaketaldian aurkeztu nahi diren meritua egiaztatzeko agiriaren fotokopia konpultsatua, deialdi honetako 7. atalean ezarritakoa jarraiki” eta 7.2 atalean haxe “Lan-esperientzia egiaztatzeko derrigorrezkoa izanen da, batetik, kontratatuak egindako ziurtagiriak aurkeztea (egindako lan mota azalduko dute, baita kontratuaren hasiera eta bukaera data eta lanaldi mota ere) eta, bestetik, Gizarte Segurantzak ematen duen lan-bizitzaren agiria”. **Ondorioz, aurkeztutako alegazioa ez da onartzen eskabideak aurkezteko epearen barnean ez zelako lan-bizitzaren agiririk aurkeztu.**

2. ARIANE USARBARRENA EKIZA IZANGAIK AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK (2025/04/18ko 1909 / 2025 sarrera zenbakia):

- **7.1.a) puntuari dagokionaren arabera: “Toki-erakunde baten zerbitzuan euskara teknikarien funtzioetan aritu izana. Urte bakoitzeko 3 puntu eta gehienez ere 18 puntu.**

1. IRANTZUKO GIZARTE ZERBITZUEN MANKOMUNITATEAN:

Lanpostua: Euskara Teknikaria. Kontratazio aldia: 2022ko irailaren 1etik 2023ko otsailaren 22ra. Totalen kontratatuta: 175 egun. Jardun osoan egon nintzenez, entitate honi dagokion puntuazioa: 1,44 PUNTU

2. LIZOAINIBAR-ARRIASGOITIKO UDALEAN:

Lanpostua: Euskara Teknikaria. Kontratazio aldia: 2023ko otsailaren 23tik 2023ko apirilaren 2ra. Totalen kontratatuta: 39 egun. %68ko jardunean egon nintzenez (25 ordu astean), entitate honi dagokion puntuazioa: 0,22 PUNTU

3. ARANGUREN IBARREKO UDALEAN:

Lanpostua: Euskara Teknikaria. Kontratazio aldia: 2023ko apirilaren 3tik 2024ko abuztuaren

31ra. Totalean kontratatuta: 517 egun. Jardun osoan egon nintzenez, entitate honi dagokion puntuazioa: 4,25 PUNTU

4. ORKOIENGO UDALEAN:

Lanpostua: Euskara Teknikaria. Kontratazio aldia: 2024ko irailaren 1etik 2024ko urriaren 31ra. Totalean kontratatuta: 61 egun. Jardun osoan egon nintzenez, entitate honi dagokion puntuazioa: 0,50 PUNTU

Beraz, aipatutako deialdian 7.1. a) atalaren PUNTUAZIO TOTALA: 6,41 PUNTU dira.

Epaimahaiaren erantzuna. Emandako datuak zuzenak dira eta adierazitako puntuazio hori da hasiera batean epaimahaiak esleitu diona, hau da 6,41 puntu. **Ondorioz, aurkeztutako alegazioa ez du oinarririk eta 7.1.a) atala 6,41 PUNTUTAN uzten da.**

- 7.1.c) puntuari dagokionaren arabera, “Elkarte edo erakunde pribatuetan euskararen normalizazioan dinamizatzaile, koordinatzaile edo teknikarien funtzioetan aritu izana. Urte bakoitzeko puntu 1 eta gehienez ere 3 puntu. Zati bakoitzeko (egunak edo lanaldia) haren ehunekoa.” nik aurkeztutako elkarte kontratatzaileen ziurtagirietan ikus daitekeen moduan:

1. NAFARROAKO EUSKALTZALEEN TOPAGUNEAN:

Lanpostua: Euskararen normalizazioan dinamizatzaile, koordinatzaile eta teknikarien funtzioak. Kontratazio aldia: 2019ko maiatzaren 13tik 2021eko uztailaren 30era. Totalean kontratatuta: 809 egun. Jardun ezberdinetan egon nintzenez, entitate honi dagokion puntuazioa, jardun eta denboraren arabera sailkatuko dut:

-Jardun erdian (%50): 2019/05/13- 2019/05/31 + 2021/04/01 2021/07/30 --> 140 egun totalean. Totalean: 0,19 PUNTU

-Hiru laurdeneko jardunean (%75): 2019/06/01 2019/08/31 -->92 egun. Totalean: 0,19 PUNTU

-Jardun osoan (%100): 2019/09/01 2021/03/31 --> 578 egun. Totalean: 1,58 PUNTU

TOTALEAN: 1,96 PUNTU

2. KARRIKALUZE EUSKARA ELKARTEAN:

Lanpostua: Euskararen normalizazioan dinamizatzaile, koordinatzaile eta teknikarien funtzioak. Kontratazio aldia: 2021eko irailaren 1etik 2022ko apirilaren 30era. Totalean kontratatuta: 242 egun. Jardun osoan egon nintzenez, elkarte honi dagokion puntuazioa: 0,66 PUNTU.

Beraz, aipatutako deialdian 7.1. c) atalaren PUNTUAZIO TOTALA: 2,62 PUNTU dira.

Epaimahaiaren erantzuna. Nafarroako Euskaltzaleen Topagunean egindako lanari buruz emandako datuak zuzenak dira eta adierazitako puntuazio hori da hasiera batean epaimahaiak esleitu diona, hau da 1,96 puntu. Aldiz, Karrikaluze Euskara Elkartearen egindako lana ez da kontutan hartu aurkeztutako agirian “administratzaile eta kultur koordinatzaile gisa” aritu izana aitortzen delako. **Ondorioz, aurkeztutako alegazioa ez da onartzen eta 7.1.c) atala 1,96 PUNTUTAN uzten da.**

- 7.1.f) puntuari dagokionaren arabera, “Epaimahaiaren iritziz deialdiko lanpostuarekin zerikusia izan eta 10 ordutik goitiko iraupena duten ikastaroetan parte hartu izana (soziolinguistika eta prozedura administratiboa). Gehienez ere 5 puntu. Puntuak honela banatuko dira: 10-30 ordu bitarteko ikastaro bakoitzeko: 0,25 puntu / 31-50 ordu bitarteko ikastaro bakoitzeko: 0,50 puntu / 51-100 ordu bitarteko ikastaro bakoitzeko: 0,75 puntu / 101 ordutik gorako ikastaroak: puntu 1”, nik deialdian aurkeztutako ikastaroen ziurtagirietan ikus daitekeen moduan:

1. GAZTEAK ETA ELEANIZTASUNA Euskal Herriko Unibertsitateko Udako Ikastaroa 2019ko irailaren 2an eta 3an antolatutakoa (20 ordukoa): 0,25 PUNTU
2. GIZA ESKUBIDEEN ALDEKO BALIABIDE PEDAGOGIKOEN II NAZIOARTEKO MINTEGIA Aieteko Giza Eskubideen aldeko Pedagogia - Baliabideen Zentroak 2020ko urtarrilaren 19an eta 20ean antolatutako mintegia "Bizikidetza aniztasunean" gaia ardatz zuena. (11 ordukoak): 0,25 PUNTU
3. UDALTOP 2023 UDALETAKO EUSKARA ZERBITZUEN TOPAKETAK "Bat, bi, hiru Eskolaz kanpoko euskaratik eta euskaraz" Administrazio publikoetako hainbat entitateek 2023ko maiatzaren 11n eta 12an Lasarte-Orian antolatutako jardunaldiak- ONLINE (12 ordukoa): 0,25 PUNTU
4. UDALTOP 2024 UDALETAKO EUSKARA ZERBITZUEN TOPAKETAK "Nola erakarri etorri berriak euskarara? Eta euskaldunok, nola hurbildu etorri berrietara?" Administrazio publikoetako hainbat entitateek 2024ko maiatzaren 16ean eta 17an Lasarte-Orian antolatutako jardunaldiak - ONLINE (12 ordukoa): 0,25 PUNTU
5. "ONGI ETORRI EUSKARAREN MUNDURA" Harrera jardunaldiak - Euskalgintzaren Kontseiluak 2024ko urriaren 10ean eta 11n Gasteizen antolatutako jardunaldiak (11 ordukoak): 0,25 PUNTU

Beraz, aipatutako deialdian 7.1.f) atalaren PUNTUAZIO TOTALA: 1,25 PUNTU dira.

Epaimahaiaren erantzuna. Deialdian zehazten da ikastaroak soziolinguistikari eta prozedura administratiboari buruzkoak behar direla izan. Epaimahaiaren iritziz 'Gazteak eta eleaniztasuna' ikastaroa soziolinguistikaren baitan onartzen da, baina 'Bizikidetza aniztasunean' mintegia, UDALTOP topaketak eta 'Ongi etorri euskararen mundura' jardunaldia ezin dira ikastarotzat hartu. **Ondorioz, aurkeztutako alegazioa neurri batean onartzen da eta 7.1.f) atala 0,25 puntutan uzten da.**

Alegazio guztiak kontutan hartuta, ARIANE USARBARRENA EKIZA izangaiaren puntuazio zuzendu eta 8,62 PUNTUTAN uzten da.

3. PATXI EZPONDA SAKARA IZANGAIK AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK (2025/04/24ko 1967 / 2025 sarrera zenbakia):

ADIERAZTEN DU:

1- 1944/2025 sarrera eman zaion eskabidean eskatzen dudana bezala, hautagaien merezimenduen balorazioa zuzendu ahal izateko edo kontuan hartu diren datuen aurkako alegazioak edo zuzenketak eskatzeko eperik eman ez dela.

2- Hala ere, eskabide honi atxikita bidaltzen ditut bi dokumentu, zeinak merituen balorazioan emandako puntuaketan eragina izan dezaketen.

ESKATZEN DU:

1- Epe bat irekitzea merezimenduen balorazioari buruzko alegazioak edo dokumentazio osagarria aurkezteko, interesdunen prozedura-eskubideak eta prozesuaren gardentasuna bermatzeko.

2- Eperik ireki ezean, eta nahiz eta argi utzi nahi dudana ez nitzatekela batere ados egongo erabaki horrekin, onartu eta baloratu daitezela atxikita bidaltzen ditudan bi dokumentuak, merituen balorazioetan izan dezaketen eraginagatik.

Epaimahaiaren erantzuna. Deialdiak honako hau aipatzen du oinarrietan: "4.2. Parte hartzeko eskabidearekin batera honako agiri hauek aurkeztuko dituzte izangaiak: c) Lehiaketaldian

aurkeztu nahi diren merituen egiazteko agiriaren fotokopia konpultsatua, deialdi honetako 7. atalean ezarritakoa jarraiki” eta 7.2 atalean haxe “Lan-esperientzia egiazteko derrigorrezkoa izanen da, batetik, **kontratatuak egindako ziurtagiriak aurkeztea (egindako lan mota azalduko dute, baita kontratuaren hasiera eta bukaera data eta lanaldi mota ere)** eta, bestetik, Gizarte Segurantzak ematen duen lan-bizitzaren agiria”. Izangaiak 2024/11/13an (5106 / 2024 sarrera) aurkeztutako instantzian aurkezten du lan-bizitza agiria eta toki entitateetako kontratuak, ez ordea kontratatuak egindako ziurtagiriak, deialdian zehaztu bezala. **Ondorioz, aurkeztutako alegazioa ez da onartzen eta 7.1. atala 0 PUNTUTAN uzten da.**

4. ORREAGA MIREN ZUBELDIA APAOLAZA IZANGAIK AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK (2025/04/29ko 2006 / 2025 sarrera zenbakia):

Nafarroako Tokiko administrazioetarako teknikariaren lan-poltsako merituen zenbaketa dela eta, adierazten dut kontaketa oker dagoela, 2 puntu jaso baitituz, eta oinarrietan zera dio:

7.1.d) Hizkuntza plangintzari eta soziolinguistikari buruzko graduondoko titulazioak (HIZNET, postgrado ‘Planificación Lingüística’, máster ‘Adquisición, gestión y prácticas lingüísticas del euskera en el siglo XXI’, etc.): 5 puntuak. ‘Hizkuntza Plangintza’ graduondokoa, ‘Euskararen jabeaketa, kudeaketa eta hizkuntza praktikak XXI. mendean’ masterra, etab.): 5 puntu.

Horrenbestez, akatsa zuzentzea eskatzen dut eta 2 punturen ordez HIZNET GRADUONDOKOARI dagokio 5 puntuak ematea.

Epaimahaiaren erantzuna. Izangaiak 2024/11/15ean (5172/2024 erregistro zk.) aurkeztutako instantzian ez zuen aipatutako HIZNET GRADUONDOKOaren agirik aurkeztu. Meritutzat kontatzen ahal den bakarra da Euskal Filologia egiteagatik C2 maila izatea eta horri dagokio emandako bi puntuak. **Ondorioz, aurkeztutako alegazioa ez da onartzen eta 7.1. atala 2 PUNTUTAN uzten da.**

Eta aztergai gehiagorik egon ez denez, bilera 11:30ean amaitu da, eta nik, idazkari naizen aldetik, hori guztia egiaztatu dut lehendakariaren oniritziarekin.

Sinadura elektronikoaren tokian eta egunean,

EPAIMAHAIKO IDAZKARIA